

2024-12-20

PRENTSA-OHARRA

## **EZ DA AURRERA EGIN EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN ETORKIZUNERAKO ESTRATEGIKOAK DIREN GAIETAN**

Urtebete igaro da Hezkuntza Legea onartu zenetik, eta bi urte eta erdi lege hori oinarritu zuen hezkuntza akordioa onartu zenetik. Ordutik, Hezkuntza Sailaren jarduna eskasa izan da, eta oso urrun daude hainbat konpromiso zehatzetatik.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko 17/2023 Legeak eskola publikoaren protagonismoa aipatzen badu ere, argi dago Hezkuntza Sailarentzat eskola publikoa ez dela lehentasuna.

Ituntze unibertsala blindatu da, eskola-postu pribatu berriak sortu dira plaza libreak egonik eskola publikoan eta sare pribatu itunduaren finantzaketa handitu da.

Ikastetxe pribatu-itunduetan kuotak kobratzen jarraitzen da, ez da ordainketa horiek kontrolatzeko administrazio-unitaterik sortu eta ez da eskola-zerbitzuak onartzeko prozedurarik ezarri. Onartutako kuotak eta kontzeptuak ere ez dira argitaratu Hezkuntza Sailaren webgunean, Legeak berak jasotzen duen bezala.

Segregazioaren aurkako neurriak ez dira funtzionatzen ari. Ez dago aniztasunaren eskolatze orekaturik, eta Hezkuntza Sailak bigarren urte honetan segregazioaren aurkako neurriak pixkanaka ezartzea blokeatu du.

Ikasturte honetan, Sailak hainbat harreman izan ditu Eskola Publikoaren Plan Estrategikoa egiteko. Proposatutako gaien edukiak ez ditu barne hartzen eskola publikoaren etorkizunerako ezinbestekoak diren alderdiak, hala nola azpiegiturak berritzea eta hobetzea, eskola publikoaren perimetroa handitzea, plaza publikoak gehitzea edo eskola publiko batean plaza bat nahi duen familia orok bertara sartzeko aukera izatea.

Era berean, ez zaio heldu Eskola Mapari, demografiaren beherakadak ikastetxe publikoen etorkizunean izango duen eraginari, Haurreskolak hezkuntza-sistema publikoan erabat integratzeari, itunpeko ikastetxeak publiko egiteari, edo jantokiak hezkuntza-proiektuaren barruan integratzeari. Azken arau-aldaaketak bidea ixten dio eskola-jantokiaren eredu alternatibo bati.

Horregatik guztiagatik, hezkuntza legea aldatu eta urtebetera, EHIGEk balorazio negatiboa egin du Hezkuntza Sailaren jarduketei buruz, ez baita aurrera egin Euskal Eskola Publikoaren etorkizunerako estrategikoak diren gaietan.

## NOTA DE PRENSA

### UN AÑO SIN AVANCES EN TEMAS ESTRATÉGICOS PARA EL FUTURO DE LA ESCUELA PÚBLICA VASCA

Ha pasado un año desde la aprobación de la Ley de Educación, y dos años y medio de la aprobación del Acuerdo Educativo que fundamentó dicha ley. Desde entonces, las actuaciones del Departamento de Educación están siendo insuficientes y quedan muy lejos de los compromisos concretos adquiridos por ellos mismos.

Aunque la Ley 17/2023 de Educación de la Comunidad Autónoma hace referencia al protagonismo de la escuela pública, queda claro que para el Departamento de Educación la escuela pública no es una prioridad.

Se ha blindado la concertación universal, se han creado nuevos puestos escolares privados existiendo plazas libres en la escuela pública y se ha aumentado la financiación de la red privada concertada.

Se siguen cobrando cuotas en los centros privado-concertados, no se ha creado la unidad administrativa de control de dichos pagos, ni se ha establecido el procedimiento de aprobación de servicios escolares. Tampoco se han publicado en la web del Departamento de Educación las cuotas aprobadas y sus conceptos, tal y como lo recoge la propia Ley.

Las medidas contra la segregación no están funcionando. No hay una escolarización equilibrada de la diversidad y el Departamento de Educación ha bloqueado este segundo año la implementación progresiva de las medidas contra la segregación.

Durante este curso, el Departamento ha realizado contactos para la elaboración del Plan Estratégico para la Escuela Pública. El contenido de los temas propuestos no incluye aspectos vitales para el futuro de la escuela pública como la renovación y mejora de las infraestructuras, la ampliación del perímetro de la escuela pública, la ampliación de las plazas públicas o que toda familia que desee una plaza en una escuela pública pueda acceder a ella.

Tampoco se ha abordado el Mapa Escolar, el impacto que el decrecimiento demográfico tendrá en el futuro de los centros públicos, la integración total de las Haurreskolak en el sistema educativo público, el marco para la publificación de centros concertados, o la configuración de los comedores dentro del proyecto educativo, cuya última modificación normativa cierra la vía a un modelo alternativo de comedor escolar.

Por todo ello, a un año del cambio de la ley educativa, EHIGE valora negativamente las actuaciones del Departamento de Educación, ya que no se ha avanzado en temas estratégicos para el futuro de la Escuela Pública Vasca.